

Mikrohomofobia



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Oso barneratuta ditugu keinu txiki, iruzkin edo aurreiritziei mikromatxismo esaten zaie. Oso barneratuta dauzkagu eta ez ditugu matxismoztat jotzen. Horretaz maiz mintzatzen da egun. Gure burua antimatxistatzat dugunok ere esan/egin ohi ditugu horrelakoak ohartu gabe. Mikromatxismoa da, adibidez, senarrak andreari esatea etxean “laguntzen diola”, kontziente edo inkontzienteki onartzen baitu etxeko lanak andreari dagozkiola. Matxista izango litzateke halaber emakumeei sistematikoki galdetzea noiz izango diren ama, eta ez gizonei noiz izango diren aita.

Mikrohomofobiaz, aldiz, ia ez da ezer entzuten. Eta egon badago. Mikrohomo-fobia da, esaterako, neskatxoari galdetzea ea senargaia daukan, edo mutikoari ea andreagaia daukan, neskak andreagaia edo mutilak senargaia izan lezakeela kontuan hartu barik. Hori etengabe gertatzen da. Nahiagotasun homosexualeko guztiok, nolabait esatearren, jasan dugu sufrikario hori bizitzaren garairen batean, hein handiago edo txikiagoan. Huskeriari *marikonada* deitzea ere bada mikrohomo-fobia. Ustez heterosexuala den norbait lagunari ze *marika/marikoia* zaren esatea ere, behar bezain gogorra, hotza, kementsua edo bortitza ez den zerbait esaten edo egiten duen bakoitzean, bada

mikrohomo-fobia. Edo aitak alabaren andreagaia aurkeztea esanez “hau alabaren adiskidea da”.

Gaitza hain dago hedatuta, gehienetan hain oharkabean pasatzen zaigu, ezen prentsa ere ez den bekatutik libre gelditzen. Homofobiaren behatokia, noiz-behinka jasotzen dugu horren inguruko kezarik. Hori dela eta, berriki egon gara egunkari bateko arduradunekin harremanetan salatzeke ohiko zutabegile batek idatzietan sarri erabiltzen dituela mikrohomo-fobiatzat har litezkeen esamolde edota kontzeptuak, bai eta, are larriagoa dena, *mikro* aurrizkia gabe homofobia argiaz kalifika litezkeenak ere. Eskatu genien salaketa-gutuna edo iritzi-artikulua argitaratzea behintzat, horretaz guztiaz hausnarketa eginez. Bada, ez da modurik izan. Gaindiezinezko horma batekin egin dugu topo: aniztasunaren eta adierazpen askatasunaren izenean, orriak zabalik ei dituzte pentsamolde guztietara. Pentsamolde horietako batek irakurle anitz mintzea ez bide zaie axola, ezta gizarteak berak hautatu dituen elkarbizitza-arauen kontrakoa bada ere. Honek beste eztabaida batera garamatza: askatasun adierazpenerako eskubidea gizakion duintasun eta errespeturako dugun eskubidearen gainetik al dago? Zentsura al da gorroto-diskurtsoen kontra ekitea? ●

Ehun(du)



LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA
@txargain

Irazkiko harien artetik bilbekoak pasaraziz, ehuna moldatu”. Hala definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak *ehundu* berba. Ehungailuan jartzen dira irazkiak (goitik beherako hariak, tenkatuta eta mugitzen ez direnak), eta euren artetik, zeharka, bilbea (beste haria) ezker-eskuma pasatzen da anezkarekin (orratz erraldoia), oihala gauzatu arte.

Iaz Euskaltzaindiak ehun urte bete zituen, eta *Euskara ehuntzen* leloa aukeratu zuen urteurrenerako. *Argia*-k ere ehun urte bete ditu aurten, zahar izatea akats legez ikusita dagoen sasoi

honetan. Baina aldizkari hau zaharra izan arren, etengabe dabil eraikitzen, produzitzen, oihala egiten, berritzen, gure errealitatea ehuntzen.

Artikulu honen izenburua originala ez bada ere, esango nuke gure aldizkaria zerutik argitzen hasi zitzaigunetik, eta txikitik eragiten, gelditu barik aritu dela irazkia eta bilbea uztartzen, anezkaz gurutzatzen. Irakurleak eta informazioa, Euskal Herria eta mundua, beti euskaraz.

Zorionak, *Argia*. Zorionekoak zuek, *Argia* Jendea. Beste ehun urte ere jar-dungo ahal du ehungintzan! ●